

Lehen atala: ROLE PLAYING

Gatazka egoera desberdinak planteatzen dira Calasanz Mugimenduaren taldeko kideek antzezteko. EZ da beharrezkoa denak gauzatzea, gehien komeni direnak edo bileraren denboraren arabera egingarriak direnak, proposatutako lanari aurre egiteko:

1. EGOERA:

Omar eta Leo lagun minak dira eta ikasgelan robotika lan bat egiteko taldea osatzea erabakitzen dute. Leok robotika maite du eta beti egin izan ditu proiektuak etxean, bere denbora librean, beraz, ez dago taldean lan egitera ohituta.

Amaitzean, irakasleak nota ona ipintzen die, baina lana bien artean egin izan balute, nota hobea lortuko zutela iradokitzen die.

Omar haserretu egiten da eta Leori jakinarazten dio.

2. EGOERA:

Juan eta Nancy-ren arteko *whatsapp* bidezko elkarrizketa oso interesgarri bat moztu egiten da, Nancy-k kalean estropezu egin eta telefonoa errekan galdu duelako.

Juan erantzunaren zain gelditzen da. Orduak igaro ahala bere haserrea areagotu egiten da.

Astelehenean, eskolan, Juan-ek ez du Nancy-rekin egon nahi eta Nancy haserretu egiten da Juanen isiltasunagatik.

Egun batzuk beranduago, guztiz amorratuta, hitz egiten dute gatazkaren errua leporatuz batak besteari eta aurreko gatazkaren bat ere gogora ekarriz.

3. EGOERA:

Kevin-en aita nekatuta iristen da etxera lanetik eta errieta egiten die seme-alabei logela desordenatuta dutelako.

Kevin ez da sofatik mugitzen eta horrek aitaren haserrea areagotzen du.

Beranduago, Kevin txakurra paseatzera ateratzean atea danbateko batekin itxi eta bide batez, anaiari kolpe bat ematen dio buruan.

Bigarren atala: HAUSNARKETA PARTEKATUA (5 aholku ongi eztabaidatzeko).

Gatazkak gehiago eta hobeto maitatzeko aukera bat dira.

1. Landu komunikazioa egunerokotasunean: Eztabaidatzea komunikatzea da, beraz, eguneroko bizitzan ez badago komunikaziorik, ez dugu komunikaziorik izango tentsio-uneak bizi ditugunean ere. Komunikatzea hitz egitea da, kontatzea, partekatzea, baina baita entzutea, galdetzea eta bestea behatzea ere.
2. Arreta jarri arazoan eta nola sentiarazten zaituen: Ezinbestekoa da emoziotik hitz egitea, gertaerak nola sentiarazten zaituen azpimarratu behar da, gertaeran soilik arreta jartzeak akusazio etengabeak ekartzen dituen eztabaida amaigabeak sortzen dituelako. Egunero gertatzen diren gatazka gehienek sakonago aurkitzen diren beste gatazka batzuek hitz egiten dute askotan.
3. Ez bilatu konponbideak, bilatu ulermena: Gatazkak ez dira beti konpontzen eta ez dira elkarriketa batekin disolbatzen. Badaude behin eta berriro azaleratzen diren gaiak, elkarrekin bizi beharreko prozesuak dira, eta maitasuna haien gainetik dagoela gogoratu behar da. Eztabaiden helburua beste pertsonaren prisma ulertzea da (partekatu ez arren), eta alderantziz. Ulermenetik, konponbidea iritsiko da.
4. Gogoratu aurrean ez duzula menderatu beharreko arerio bat, maite duzun pertsona bat baizik: Gatazkak gertatzen direnean erasotutak sentitzen gara, horregatik gure erreakzioa beste eraso bat izaten da. Ahaztu egiten gara benetan bilatzen duguna onarpena dela, gertutasuna eta hitzarmena maite dugun pertsona batekin.
5. Eskatu barkamena beti: Beti dago barkamena eskatzeko arrazoiren bat. Altuegi hitz egiteagatik, epaitzeagatik, hitz zatarren bat esateagatik, mespretxuz hitz egiteagatik, ez entzuteagatik. Barkamena eskatzea ez da beheramendua, zintzotasun eta maitasun keinua da. Gainera, normalizatu nahi ez ditugun jarrera kaltegarriak azpimarratzen ditu.

Lucía Pérez Forriol, 2021eko abendua.

Hirugarren atala: AMAIERAKO OTOITZA (proposatutako materialak)

Joanen Ebanjelioa, 12, 34-35

Jesus, azken afarian: "Agindu berri bat emango dizuet: batak bestea maitatzea. Nik maitatu zaituztedan bezala, zuek ere berdintsu maitatzea batak bestea. Horregatik jakingo dute nire diszipuluak zaretela: batak bestearekiko duzen maitasunagatik"

Abestia Leialak eta batuak (Ain Karem)

<https://www.youtube.com/watch?v=a9fb4LQhKcg>

Otoitza HARTU (Mahatma Gandhi)

Hartu irribarre bat
eta emaiozu
inoiz bat izan ez duenari.

Hartu eguzki izpi bat
eta bidali hegazka
gaua den lekuraino.

Aurkitu iturri bat
eta busti dadila bertan
Lokatz artean bizi dena.

Hartu malko bat
eta ipini
inoiz negar egin ez duenaren aurpegian.

Hartu kemena
eta jarri borroka egiten ez dakienaren
gogoan.

Ezagutu bizitza
eta konta iezaiozu
ulertzen ez duenari.

Hartu esperantza
eta bizi haren argipean.

Hartu ontasuna
eta emaiozuematzen ez dakienari.

Ezagutu maitasuna
eta emaiozumunduari.

educa:

Red educativa para la transformación social



UN PROYECTO DE
ITAKA - ESCOLAPIOS
www.itakaescolapios.org

